

Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

Narvik-eko Udala, “sub-primeen” biktima Artikoan

Uda betean gaudelarik, gauerdian ere eguzkia dakusate zirkulu polarretik 200 kilometro iparrerago dagoen Narvik herrian, Norvegian. Aldiz, gainerako guztia daukate ilun: AEBetako “sub-prime” kredituen eztandak airean eraman ditu Narvikeko Udalak inbertsiotarako zeuzkan aurrezkiak.

EKAITZ GOGORRENEI AURRE EGITEN

ohiturik daude Norvegiako Narvik herrian, baina ametsik gaiztoenean ere ez zuten ikusiko orain gertatu zaiena. Industriak eta turistek ekarritako diruz aberatsa zen beren udala gaueetik goizera hondoa jota aurkitu dute, aurrezkiak finantza bitartekarien bidez AEBetako kreditu usteletan inbertituta zeuzkatelako. Esan agur ongizate gizartearen abantailak batzuei bederen, bolada baterako.

“Sub-prime” motako edo kalitate txarreko kredituen krisia hasi berria zenean askok iritzi zioten Estatu Batuetako finantzeta mugatuko zela. Beranduago, eta batik bat 2007ko abuztutik aurrera, mundua ohartu zen finantza krisia planeta osoak nozitu behar zuela. 2008a iritsi da eta finantzeta adituak direnek diote gaur dela eguna oraindik ez dakiguna kreditu ustel yankiek zenbat banku eta zein neurritaraino kutsatu dituzten.

AEBetako bankuetako birus horrek oso urrutiko bezeroak gaixoa-razi ditu, eta “sub-primeen” kutsakortasunaren eredu gerta daiteke Norvegiako iparraldeko muturrean hondoa jota dagoen Narvik herria.

Historia kontuetarako zaletasuna dutenek akorduan izango dute Narvik izena II. Mundu Gerran eduki zuen protagonismoagatik. Bertan gudu famatu burutu baitzuten ingelesak eta alemanek, gerra hasi berri-

tan. Oraindik erraz aurki omen daitezke portuko bokalean hondaturik dauden gerrako bapore alemanen txatarrak.

Gaur Narvikek 18.000 biztanle dauka eta naturak egin dion opari bati zor dio bere aberastasuna. Karibetik hasi eta Atlantiko aldetik Euro-pa igurtzi ondoren Norvegiako kostalderaino ailegatzan den Golkoko korronteari esker batetik eta inguruan dauzkan mendien babesean bestetik, hain iparrean egoteagatik tokatuko litzaiokeena baino eguraldi gozoagoa dauka urte osoan Narvikek. Hemen ere, udan gauerdiz eguzkia ikusten da eta negu luzean egunak erabat ilunak izan ohi dira, baina kokapen berezia dela medio neguan ere baporeentzako izotzik gabe edukitzen du portua.

Norvegian egon arren, Narvik izan da Suediako meategietako burdina garraiatzeko kai hauta, eta azken hamarkadetan berriz turismoa ugaritu da, alpino motako eskia egiteko kome-ntentzia eskaintzen duelako.

Baina 2008ko udan gaurik gabeko egun amaiezinak gozatzeri iritsi diren turistek kezka beteriko biztanleak aurkitu dituzte Narviken. Honen eta Norvegiako beste zortzi herritako udalen aurrezkiak “sub-prime”en suteak kiskali ditu.

The Guardian egunkarian Gwladys Fouché-k titulu hau ipini dio kronika-ri: “Sub-primeen hotzeria Artikorai-

Narvik herriaren sarreran ipinita dagoen seinale honen geizetan idatzirik daude Europako zenbait hiri nagusitara dauden kilometroak. Edonondik urrun da. Norvegiako trenbideetako azken geltokia, Bodo, kasik 300 kilometrotara dauka, eta bultzia Suediako Kirunatik iristen zaio. Industriak eta azken hamarkadotan turismoak eman diete bizi gain aberastasuna narviktarrei, baina orain horien zati handi bat AEBetako “sub-prime” kredituen hondoraketak suntsitu ditu betiko. Ongizate gizartearen ereduetakoa den Norvegiako herri honetan biztanleek lau urte edo gehiagoz zerbitzu murrizketa mingarriak jasango dituzte, oso urruti –Atlantikoaz bestaldean– etxebizitzatarako kredituek porrot eginda horien kaltea mundu osora zabaldu delako. Finantzen globalizazioak dauzkan arriskuen metafora da Narvik.

no iritsi da”. Australian bideozko kazetaritza egiten duen *Dateline* agenzia-ziako George Negus-en erreportajeak (Internetez ikusgai dago) lerro-buru hau daroma: “Narvik, icebergaren muturra”. Biak mintzatu dira oraindik *groggy* dauden herritarrekin eta agintariekin.

Herriko alkatea Karen Kurvaas-ek ez dio prentsari berba egin nahi. Oposizioiko buru Torgeir Traedal-ek bai: “Diru mozketak egongo dira osasungintzan, eskoletan, zaharren zainketan, gazteen taldeetan, kirolean. (...) Jendeak ez du ulertzen atzerriko krisiak herrian holako eragina izatea. Eskubidea dute haserre egoteko”.

Gerrikoa estutzeko garaiak

Hondamendiaren zimentarriak duela urte batzuk ipini zituzten udal agintariek, Narvikeko diruetatik 30 milioi euro *security* edo finantza titulutan inbertitu zituztenean. Norvegia bertako Terra Securities *broker* edo bitartekari ezagunaren bidez egin zuten inbertsioa, munduko banku nagusietakoa den Citigroup famatuaren babesean. Agintariek diote inork ez ziela esan tituluok interes handiak agintzeaz gain arrisku handikoak ere bazirela; haiek ueste omen zuten Norvegiako enpresetan ari zirela jartzen herriko txanponak.

2007ko udan kredituen merkatua lehertu zenean, Narvik 22 milioi euro



gutxiagorekin aurkitu zen bat-batean. Azken mugimendu guztiak kontatuta, 25 milioi euro galdu ditu udalak. Seguru Citigroupentzako baino gehiago esan nahi dutela 25 milioi eurok narviktarrentzako: urte osorako daukaten 125 milioi euroko aurrekontuaren bostetik bat galdu dute.

Zinegotzietan onartu dute ondoko lau urteetan aurrekontuak %10 murriztea. Oposizioko buru Torgeir Traedal bera suhiltzailea da. “Gaur egun 24 orduko suhiltzaile zerbitzua daukagu asteko zazpi egunetan. Hemendik aurrera egunez bermatuko da zerbitzua, eta gauzez bezala asteburuetan suhiltzaileei etxera hots egin beharko zaie”.

Irakaskuntza ere udalaren gain doa. Narvik hiri kaxkoaz gain urrutiko

auzo osatuta ere badagoenez, horiek lirake kaltetuenak. Baliteke hirigunetik 30 kilometrotara dauden eskola batzuk itxi behar izatea. Honek ikasleak kontzentratzea ekarriko du lehenik, guraso askoren lekualdatzea gero, eta okerreanean auzo horietan zaharrrak baino ez geratzea.

Zaharren zerbitzuek ere nozituko dute. Hala ere, zaharrentzako hori baino are bortitzagoa da haien urte luzetako zergak, seme-alabek eta bilobek etorkizun oparagoa edukitzeko eman zituztenak, udaberrian elurra bezala desegiten ikustea. Galera nola gertatu den ezin dute konprenitu.

Norvegiako Finantza Agintaritzako Wystein Kleven-ek deklaratu du Terra Securitiesek engainatu egin zituela agintariak. “Terrako *brokerrek*

ez zieten esplikatu zinegotziei tituluon mekanismoetako bat: burtsan beren balioen %55 galtzen bazuten, udalak saltzeko aukera zeukala alegia. Hain zuzen horixe gertatu zen joan den udan, kredituen hondamendia jazo zenean, eta Narviketik are diru gehiago pagatu zuen gutxiago galtzeko itzaropenean. Ez gaude ziur Terrako *brokerrek* berek ere mekanismoa ongi konprenitzen ote zuten”.

Operazioaren azken berme moduan ageri zen Citigroupetik gero esan du udalari Terra Securitiesek saldu ziena oso produktu sofistika-tuak erostera ohituta dagoen inbertsiogileentzako dela. Bistakoa da herriko etxeak ez direla inbertsiogile sofistika-tuak, baina eskaintzen zitzaizkien etekin mamitsuen distirapean ahaztu zuten finantza merkatuko urrezko araua: ez ezazu erosi ondo konprenitzen ez duzun produkturik.

Norvegiako Finantza Agintaritzak erabaki du Terra Securitiesek ez zituela zaintzen negozioetako jardue-ra egokiak eta joan den azaroan lizentzia kendu zion. Baina Norvegiako estatuak ez ditu bere gain hartuko udal honek eta beste zortzik titulu ustelduekin jasandako galerak. Negozioak egiten dira irabazteko bezala galtzeko, beste araurik ez da.

Narviketako Udalean horrela ohartu dira teoriar aholku ematera zetorkien finantza enpresa, aholkuarekin batera, produktuak ere saltzen ari zitzaie-la. Globalizazioa zer den ere bai. ■

www.argaia.com/nethurbil.php helbidean, gai honi buruzko informazio gehiago eta Interneteko loturak.



**Produkturik onenak,
Zinkunegi Optikan**

Aukerarik zabalena
betsurreko graduatu,
ukipen-lente,
audiofono eta
eguzkitako
betsurrekoetan.

**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani kalea - 20004 DONOSTIA
e-posta: zinkunegi@euskalnet.net
TEL.: 943 420 624